



San Kristobal eguneko bazkarixa

Berrogeta hamar urte beteko dattu erretratu honek San Kristobal egunian. *Paulitonian*, Kale Barriko Etxeberria jatetxian atarata dago, txoferrak euren patroiairen omenez egindako bazkarixan. Danetik agerketan xaku: kamionero autonomuak, baso-lanetan jarduten euenak, enpresetako txoferrak, garajetako mekaniko eta karrozeruak, taxistak, kofradixako kapi-llaua, eta abar. Kaletarrak asko, baiña auzuetakuak be ez tira falta. Behetik gora eta ezkerretik eskumara honeitxek ditztuzue:

Behian jazarritta: Joxe Mari Guridi, Kale Zaharreko *Luixena*; Joxe Mari Altzelai, *Labekua*; Genaro Billar, Zubillagako *Arretxekua*; Joxe Mari Agirrebaltzategi, *parrokixako abadia*; Joxe Zubia, Goribarreko *Antzokua*; Joxe Mari Azkune, *Montero*; eta Trino Axpe, Garagaltzako *Saintipillaukua*.

Zutik erdixan: Jabier Idigoras, *Arrijoilliena*; Luis Korta, *Zubillaga Azpikua*; Juane Arabaolaza, *Usakokua*; Joxe Mari Zufria, *Koixkar Garaikua*; Jexus Agirre, Kale Barriko *Karreteruenekua*; Jexus Mari Ugarte legazpiarra, *Mantxola* (?); Euxebio Uriarte, Araotzeko *Uxarte Garaikua*; Joxe Mari Telleria, Goribar auzoko *Bakeruena*; Pedro Txintxurretaren taillerreko langille karrozero burgostarra; Silberio Urmeneta, *Xolonpo*; Joxe Luis Ugarte, kaletarra, Olabarrietako *Zulatzara ezkonduakua*; Reyes Elortza, Olabarrietako *Auntzerreka Zabarrekua*; Xalbador Abaunz, *San Pedroko kalejakua*; Xanti Galdos, *Uribarriko Aingerukua*; Leandro Arrazola, Olabarrietako *Billar Haundikua*; Segundo Galfarsoro, Portalekuko *Segunduenekua*; beste karrozero burgostar bat; Juanito Igartua, Zubillagako *Zubiaurreko zerrakua*; Migel Elortza, arotza, *Elazarra*; Rufino Idigoras, *Arrijoilliena*; eta Juan Mari Garai, karnazerua (?).

Goixenian: Juanito Biain, Patrua kaleko *Perratzaillenekua*; Pedro Agirre, *Karreteruenekua*; azkenengo honen atzian, Fidel Erle, Kanpantxoko *Erlenekua*; Isaak Castillo Monteliu, *Oñatiarra* enpresako txoferra; beste langille burgostar bat; Teodoro Txintxurreta, *Mardonekua*; Gregorio Moiuia, Berezaoko *Mendikua*; Felix Barrena, Torreauzoko *Munazategikua*; Julian Elkoroiribe, Olabarrietako *Billar Goittikua* eta Joxe Zabaleta, *Xabalo*, Olabarrietako *Zabalanekua*.

J.E

Argazkixa Reyes Elortzak itzittakua da, eta guk Joxe Ramon Arrazola Urkiagak oraintxe kaleratu dauen *Historias de San Cristóbal de Olabarrieta en Oñati* liburutik hartu dogu. Joxerrak berak eta Feli Zumaldek beste xehetasun batzuk argittu doskue. Milla esker!